

## SIDEROMETALURGIA ETA EKIPAMENDU-ONDASUNAK SIDEROMETALURGIA Y BIENES DE EQUIPO

Gipuzkoa

Eibar

Erdigunea Casco urbano

### ARMERÍA ZAMACOLA



Pablo Zamakolak xx. mendearen hasieran familia-tradizioari eutsi eta eskopeta-kanoiak egiten jarraitu zuen, Pablo Zamacola e Hijos enpresa sortuta. Gerra Zibilaren ostean, familiak eskopetak egiten jarraitu zuen Zamacola Hermanos sozietate-izenarekin, eta Bartzelonako E. Schilling y Cía enpresari erositako Jabalí marka merkaturatu zuen. 1982an Eibarko lantegia itxi zuen, eskopeta erdi-automatiko batekin merkatuan jarraitzeko ahalegina egin ostean. Tailerra Eibarko hirigunetik kanpo dago, errepidearen eta Ego ibaia-aren arteko orube estu batean. Ohi bezala, etxebizitza eta lantegi eremua elkarrekin daude. Oso eraikin bakuna da, egurrezkoa eta bi solairukoa: beheko solairuan tailerra, eta goikoan etxebizitza. Tankera horretako lantegi ugari egon baziren ere garai hartan, makina-sorta osorik gordetzen duen bakarra da, eta hango ekoizpen-prozesua irudikatze-ko eta interpretatzeko aukera paregabea eskaintzen du. Azpiegitura hidraulikoa, energia-sistema eta eskopeten kanoiak zulatzeko eta iltatzeko beharrezko makina guztiak hortxe jarraitzen dute. Hasiera batean, makinak polea-ar datzen bidez eta motor bakarrarekin bultzaten zituzten. Gerora, makina bakoitzak bere motorra eduki zuen. Gaur egun, makina horietako batzuk Eibarko Armagintzaren Museoan daude gordeta.

Pablo Zamacola continuó, a principios del siglo xx, la tradición familiar dedicada a la construcción de cañones de escopetas con la creación de la firma Pablo Zamacola e Hijos. Después de la Guerra Civil, la familia continuó dedicándose a la fabricación de escopetas con la razón social Zamacola Hermanos, comercializando la marca Jabalí, adquirida a la firma barcelonesa E. Schilling y Cía. Hacia 1982 cerró su fábrica de Eibar, tras un intento de mantenerse en el mercado mediante la oferta de un modelo de escopeta semiautomática. El taller se ubica a las afueras del casco urbano de Eibar, en un estrecho solar entre la carretera y el río Ego donde, como es habitual, conviven el espacio residencial y el fabril. Es una construcción muy sencilla, de estructura de madera, con dos plantas: el taller ocupa la planta baja y la vivienda se reserva para los pisos superiores. De un gran número de talleres que existieron de esta tipología, es el único que conserva la maquinaria completa y con una importante capacidad de interpretación para poder representar el proceso productivo que allí tuvo lugar. Se conserva la infraestructura hidráulica, el sistema de energía y las máquinas necesarias para barrenar y torneear los cañones de escopeta. En un principio, las máquinas eran impulsadas por ejes de poleas y un único motor. Más adelante cada máquina contó con su propio motor independiente. Hoy, como se puede ver en la imagen, parte de esta maquinaria se conserva en el Museo de la Industria de Eibar.